



ELA-STV

1976

**BATZAR NAGUSIAN AGUR  
ETA ONGI ETORRIA**

Jaun Andreok, agur danoi.

Bai jaunak "emen gire"; gau luze baten ostean, barriro bere "emen gire".

Denboraldi luze onetan alegin guztiak egin dira euskal sindikalismoa suntsitzeko. Euzkadiko langilleok, ordea, besterik erabaki dugu; laztasun eta zigorraldi asko kostata izan arren. Baiña danok ondotoxo ezagutzen dugun egoera da eta ez gara ortaz geiegi jardungo. Bide eta bitarteko exkaxak, laguntzarik ez, edozelango garantibako egoeran beti borrokatuz; langilleen balio, elburu eta nortasunai lotuaz. Rejimenak badoiaz eta euskal sindikalismoak bertan darrai.

Onela, ba, amen gara, eta au, beste barik, garrantzizkoa da; gure sindikalismoaren indar bizikorraren seiñale, etorkizunaren oiñarri.

Batzar au ireki eta zabala da, ez azalez bakarrik, mamiz bere baiño; gure demokraziaren zentzuan: edozein langillek, edozein batzarkidek ezer eskeiñi aal eta gura badau, bidea izan dau eta dau, edo lan sailletan, edo onera igoaz bere ikusmoldeak agertzeko. Onela, noski, kritika egiteko eskubidea onartzen deutsee beste, baita iritziak eztabaidatzea bere, azken itza erriak izan dagian. Gaiñontzekoa, burokratismoak, eta rejimen zapaltzaillearen itzalean Euskalerrari emondako eginte ertsiek ez dabe lekurik gutartean.

Batzar au, kondaira luze baten jarraipena da, egunero ekintza eta aportaziño berriez mamitzen eta aberasten doian kondaira.

Ez gatoz esku utsik, noski, eta ez da ezer aurreratzen batzar onen azken erabakietaz, batzarra bera zergatik egin dan eta zer oiñarrietan sustraitu dan esaten badugu:

Langilleen zerbitzuko sindikalismo aske bato Ekomomian, gizartean eta jakintza maillan erakunde eta bide aske eta demokratiakoen alde borrokatzea; gure erri nortasuna zaintzea, beraz, errien arteko bideetan.

Edo-ta bestela esanda: era guztietako sub-desarrolloaren aurka jardutea, zapalkundearen aurka, inperialismoaren aurka, gizona gizonaren menpean egotearen aurka, era guztietako totalitarismoaren aurka.

Iñork ez dau pentsatuko batzar batetik, eta gutxiago gaur eguneko egoeran, gure sindikalgintzaren egiturak goitik beera eratuta urtengo diranik. Gura duguna auxe da: bide batzuk urratu, oiñarri batzuk sustraitu, egitura probisional batzuk eratu. Itz bitan: euskal sindikalismorako lanabes batzuk eskeiñi eta plazaratu.

Euskal sindikalgintza, azkenean, langillegoaren esku bai dago, eta arek gura eta aal dauena izango da.

Beste barik, ba, batzar onetara gugaz egotera etorri zarien gonbidatuak, batzarkide guztiok,

ONGI ETORRI danoi eta egizute lan ona.